

Funtsezko baliabidean, hiru zatitan banatu dezakegu. Alde batetik baliabide fisikoa dago, hau da; Lokala, garraio elementuak, ordenagailua, telefonoa, diseinuak eta horrelako baliabideak nahitaezkoak dira gure enpresan. Beste aldetik, baliabide intelektualak eta giza baliabideak dauzkagu. Gure kasuan lankide bakoitzak bere zereginak edukiko ditu. Jonek diseinatzeko gaitasuna (sormena), Mikelek salmentarako eta negoziatorako abileziak, Beñatek produktuaren ekoizpen atalean honi hoberen datorkiona aztertzeko abilezia eta Redak kostuak minimizatzeko abilezia. Azkena finantza baliabideak izango dira, bertan gure enpresak egiten dituen etekinak eta aurrezkiak kontrolatzen ditu.